

## **“Ikasturte Amaiera Chillida-Lekun” Sariaren Oinarriak - 3. Edizioa**

### **Hautagaiak**

2006/07 ikasturtean Chillida-Lekuko ikastetxeentzako programa hezitzaileetan parte hartu duten taldeak.

### **Lanak**

Ikastetxeak **klaseko lan aukeraketa bat** bidaliko du. Aurkeztutako lanak bai plastikoak, bai literarioak, saiakerak edo beste motatakoak izan daitezke eta Chillida-Leku museoan izandako inpresioetan oinarrituta egon behar dute, gaia librea izanik. Hala ere, “Haizearen Orraziaren Urteurrena” gaia proposatzen dugu, aurten jarduera didaktikoen ardatza izan baita. Lanetan izenburua, egilea, klasea, ikastetxea eta bisitaren data argi agertuko dira. Horrez gain klasearen ikasle guztien izen-abizenen zerrenda bidaliko dute.

### **Lanak aurkezteko azkeneko data**

2007ko Ekainaren 15a

### **Epaimahaia**

Museoko lankideen talde batez osatua, Luis Chillida buru izanik.

### **Erabakia**

2007ko Ekainaren 20.an epaimahaiak erabakia hartuko du eta ikastetxe irabazleari zuzenki jakinaraziko dio.

### **Saria**

- “Ikasturte amaiera Chillida-Lekun Saria” trofeoa
- Irabazi duen gelaren ikasle bakoitzarentzat oparia
- 2007/08 ikasturtean Chillida-Leku museoan programa hezitzaile batean partehartzea, irabazi duen eskolaren gela batentzako

### **Erakusketa eta lanen itzultzea**

2007ko Ekainaren 24an, jasotako lanen aukeraketa bat ikusgai izango da museoan. Parte hartu duten ikasle eta irakasleek sarrera librea izango dute egun horretan. Ikasleek gonbidapen bat izango dute laguntzaile heldu batekin etortzeko, alde aurretik eskatuz gero 943.335308 telefono zenbakian. Aurkeztutako lanak jaso nahi dituzten Gipuzkoako ikastetxeek, ekainaren 29a baino lehen egin beharko dute. Gipuzkoatik kanpoko ikastetxeek postaz jasoko dituzte lanak, aipatutako data baino lehen espresuki eskatuz gero.